

Oharkabeen joaten utzi behar ez diren zazpi sintoma

EGIA DA batzuetan aparteko arrazoirik gabe kezkatzen garela, eta ez dagoela medikuarengana zertan joan gorputzak aldaketaren bat duen bakoitzean. Baina egia da, era berean, badirela seinale batzuk, garaiz hartuta serioa gerta litekeen trastorno baten irtenbide egokirako modua ematen dutenak. Biztanleriaren %60k aparteko premia edo beharrik gabe jotzen du larrialdi zerbitzuetara. Horregatik seinale batzuk ezagutzen jakitea oso baliagarria izan daiteke, seinale horiek adieraz dezaketean gaitzari garrantzi egokia emateko.

Gorputzak barruko desorekaren baten edo gaixotasun jakin baten berri ematen diguten seinaleak bidaltzen dizkigu sarritan. Horregatik, abisu horiei garrantzirik ez kentzea komeni da, gerora gaitz larriak izan daitezkeenak saihesteko balio dutelako.

Beste zerbait ezkuta dezaketean molestia itxuraz garrantzi gabeak

● **Hainbat astetako eztula.** Bronkitis biriko baten berri eman diezaguke, edo sudurreko polipoen susmoa sorrarazi. Dena den, medikuaren auskultazioak diagnostikoa argituko du, eta baita beste arrazoi posible batzuk baztertu ere; asma, esate baterako. Eztulaz gainera karkaxarekin odola botatzen bada, gaitz larriagoren bat ote dagoen aztertu beharko da –biriketako minbizia, azken muturrean–.



WWW.NEWSMAX.DE

● **Bertigo iraunkorra.** Normalean gertatzen den bezala pare bat egunean desagertu ordez, denbora igaro ahala bertigoak gero eta gogorragoak direnean eta gero eta eragozpen handiagoa eragiten dutenean, litekeena da horien azpian belarriko trastornoren bat egotea, edo oraindik diagnostikatu gabe dagoen diabetesa, hipertentsioa edo arteriosklerosia.

● **Gehiegizko logura.** Horren azpian loaren trastorno garrantzitsuren bat egon daiteke –gaueko apneak, esaterako– eta komeni da mediku batek ikustea. Depresioa eta herstura edo antsietatea bezalako arazo psikologikoak ere izan daitezke arrazoia. Hormona tiroideoaren jaitsiera, eta odolean kaltzio edo sodio gehiegi egotea ere aipatu behar dira gehiegizko logalearen erantzuleen artean. Diagnostiko egokia eta tratamendua beharrezkoak dira kasu guztietan.

● **Odol-galerak menopausiaren ostean.** Kasu gehienetan emakumeak garai horretan izan ohi duen estrogeno-mailaren beherakadak sortuak izan arren, zenbait egunetan zikinduz gero, zoaz ginekologoarengana, litekeena baita endometriosisa edo baginako irritazio edo inflamazioren bat izatea egoeraren jatorria. Medikuek agindutako tratamendu hormonalak ere sor ditzake ezohiko odol-galera horiek, baina hori espezialistak baloratuko du.

Min lokalizatuak

● **Buruko minak.** Bat-batean agertzen badira, ohikoa ez den intentsitatearekin –minak “erre” egiten duela esaten dute gaixoei–, garuneko infartu baten etorreraren abisu moduko seinaleztat har daitezke. Minarekin batera ikusmen eta koordinazio-arazoak badituzu, zoaz medikuarengana.

● **Sabeleko mina.** Mina sabelaren goiko aldean kokatua badago, edo behe-eskuinaldean, eta minaz gain sukarra agertzen bada, pankreako arazoren bat izan daiteke.

● **Gerrialdeko mina.** Disko-herriaren bat izan daiteke, batzuetan indar muskularraren galera ekarri ohi duena. Mina bizkarralde osora zabaltzen bada, behazuneko kalkuluak edo harriak izan daitezke. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16